



Zer da etxean bat gehiago izatea?

XABIER ETXANIZ ERLE 2022ko ekainaren 05a



Aurretik, Etxepare saria irabazi zuten *Euria ari duenean* eta *Hiltzaileak* albumengatik ezagutzen genuen Leire Salaberria sortzailea (badu horiez gain ilustratzaile gisa eginiko beste hainbat lan) eta hauxe dugu, oker ez bagaude, bere hirugarren lana. *Bat gehiago gara* aurretik gaztelaniaz Beascoa argitaletxean argitaratu zen (*La familia panda. Somos uno mas*) eta orain Salaberriak euskaraz ere eskaintzen digu obra interesgarri hau.

Hasiera-hasieratik nabaritzen da liburu hau albumaren eta komikiaren arteko nahasketa dela. Testuaren eta irudiaren arteko jolasaz gain komikien globoak erabiltzen ditu egileak protagonisten elkarrizketak adierazteko eta, alde horretatik, bizitasun handiagoa ematen dio kontakizunari.

Aita, ama eta alaba ditugu istorioko protagonistak; alaba da narratzailea, irakurle hipotetikoarengandik hurbilago egoteko, eta etxeko giro alaiaren zergatia azaltzen zaigu hasieran: “Bat gehiago izango gara familian, Yun” esaten dio aitak alabari. Berak, orduan “Zer da bat gehiago izatea?” galdetuko du eta galdera horri erantzuna eman nahian kontaktzen zaigu istorioa.

Salaberriak hartz batzuk hartu ditu protagonista eta, hasierako irudiaren arabera, Japonian kokatu du istorioa. Urrutiko paraje horiek ez dute, baina, samurtasuna gutxitzen edo kontakizunarekiko distantziarik jartzen. Eta seme-alaba berri baten etorrerari buruzko istorio interesgarria eta gomendagarria eskaintzen digu egileak.

Argi dago Leire Salaberriak bere hastapenetako irudi simple eta argi haietatik eboluzionatu egin duela eta oraingoan askoz informazio gehiago sartzen du ilustrazioetan. Pertsonaien ezaugarriak, espazioak, inguruak... denak informazioz beteta ageri zaizkigu Yun eta haren ahizparen istorioa hobeto ezagutzeko, istorioarekin gehiago disfrutatzeke.

Kolore pastelak nabarmentzen badira ere, trazu zehatz eta landuek asko laguntzen dute ilustrazioaren informazioa jasotzen.

Bat gehiago gara liburu atsegina da, gozoa, familia handitzeaz eta bestearen onarpenaz, hasieran sortarazten dituen arazo guztiekin baina ondorengo konplizitatearekin; horretaz guztiaz ari den istorio gomendagarria da, hitz gutxita.